



argitaletxea edo!

argitaletxeaedo@gmail.com
www.argitaletxeaedo.org



Izenburua:..... Barrukoa

Egilea: Eider Eibar

Ezaugarriak:Album mutua. 30 orrialde. 32 x 16cm.

Argitalpen data:2015ko ekaina

Lizentzia:Creative Commons

ISBN:978-84-944108-0-2

BARRUKOAREN barrukoa

BARRUKOA Eider Eibarrek bakarka argitaratu duen aurreneko liburua da. Aurrez, haur literaturako makina bat liburutarako marrazkiak egiten aritu da, beti ere beste idazleek sortutako kontakizunetako testuak ilustratzen. Oraingoan, ordea, irudiekin bakarrik osatu du kontatu nahi zuen istorioa, testurik gabe, eta aspaldidanik buru barruan izan dituen irudiak kanporatu eta guztiei zentzu eta hari narratibo bat eman die.

BARRUKOA bidaia bat da finean, barrura begira egindako esplorazio edo miaketa. Neskato bat dakusagu lehendabiziko orrialdeetan.

Bere gurditxoko arkatz eta margoekin lurra marrazten hasiko da eta halako batean, ezustean, burua sartuko du bere marrazkietan, ostrukek burua lur azpian sartzan duten gisara. Ez, ordea, bere burua ezkutatzeko asmoz, arakatzeko intentzioz baizik.

Eta burua BARRUKOAn sartzearekin batera, eroriko bat izango du neskatoak, Aliziak untxiaren gordelekuan izaten duenaren antzekoa, baina marrazkien barrualdera jauzi eginez eta, hein batean, baita marrazkilariaren baitara ere. Hori bai, ikusi egin beharko da nola aterako den neskatoa barrutik kanpora...

Izan ere, xehetasunez gainezka egiten duten ilustrazioek osatzen dute BARRUKOA eta kontatzen duten istorioaz gain, ilustrazio bakoitzak bere izaera propioa duela ere esan daiteke.

Hori horrela, BARRUKOA liburuaeren harira BARRUKOA KANPOTIK erakusketa ere prestatu du Eider Eibarrek. Ikusgai jarri ditu liburuko marrazki bakoitzera iristeko emandako pausoak eta, beraz, BARRUKOA liburuko ilustrazio orijinalak erakustearekin batera, bozeto, zirriborro, saiakera eta alde batera utzitako materiala ere aurkeztu du.

Irailaren 5era arte Gasteizko Zuloa liburu-dendan dago BARRUKOA KANPOTIK erakusketa ikusgai. Ondoren, Durangoko Arteka liburu-dendan ikusi ahal izango dira Eider Eibarren BARRUKOAtik sortutako ilustrazio, zirriborro eta bestelako arte lanak.



Eider Eibar

Pasa den astean horma pintura elegante batzuk margoztu nituen eta orain barruko liburu hau aurkeztera nator. Lehenago animazioa ikasi nuen Bartzelonan eta horren aurretik Arte Ederrak Leioan. Eskerrik asko hamabost urte hauetan zuen unibertsoen parte izaten utzi didazuen idazle guztiei, ohore handia da beti.

Eider Eibar